

JO PUNTUA

Eskerrik asko

Joakin Gorrochategui hizkuntzalariak "Historia de la Lengua Vasca" liburuan gaur egungo istorio bat kontatzen duela dirudien orain 2.000 urteko idazkun baten berri ematen digu. Harrian zizelkatutako hitzok Martres-Tolosane herrixkan aurkitu zituzten, Girona Garaian, Akitanian. Orduko sendi bateko aita, ama eta euren alaba aipatzen dira bertan, eta horrela dio: «Annius Dunohoxsis f. Calva Cassilli f. uxor Andere filia».

Aita, Annius Dunohoxsis, jatorri zeltakoa zen, galiarra, bere abizenak erakusten duen bezala. Ama, Calva Cassilli, jatorri latindarrekoa, garaiko erromatar inperioko ohiko biztanlea. Baina, eta hara hemen milaka urteko idazkunari aktualitatea ematen dion ezaugarria: aita zeltak eta ama latindarrak euren alabari euskarazko izena ipini zioten, Andere.

Adituek diotenaren arabera, galierak, latinak eta euskarak (bere akitaniar euskalki galduek bidez) maila ezberdineko presentzia zuten egungo Frantziako hego-mendebaldean. Ez dago esan beharrik inperioren hizkuntza latina zela, aipatu dugun familiako amaren, Calva Cassilliren, hizkuntza. Galiera, aitaren hizkuntza, dakigunagatik, erromatarrak heldu aurretik zabalkundean zebilen. Eta ordurako, atzeraka, erresistentzia fasean, zegoen Akitaniako euskara.

Baina bi hizkuntza indartsu, funtzional eta prestigiotsuenak hitz egiten zituzten gurasoek euskarazko izena paratu zioten Andereri. Zergatik? Ez bilatu erantzuna buru arrazoien bidez; ez dago hor.

Orain 2.000 urte Annius eta Calva legez, ugariak dira gure historia osoan zehar euskara jakin ez baina euren seme-alabentzako euskara hautatu duten gurasoak. Gure herrian Irribizi deitzen diegu.

Gure hizkuntzak bizirik irauteko ezinbestekoak izan diren guraso horiei guztiei eskerrak emateko, hain zuzen, seme-alabok ekitaldia egingo dugu datorren barikuan, 18.30ean, Getxoko Romoko Kultur Etxea-RKEN. Oraindik ez digute euren presentzia konfirmatu, baina seguru gaude, era batean edo bestean, bertan izango direla Annius, Calva eta Andere. Eskerrik asko Irribizi!

Orain 2.000 urte

Annius eta Calva

legez, ugariak dira

gure historia osoan

zehar euskara

jakin ez baina

euren seme-

alabentzako

euskara hautatu

duten gurasoak



Fredi Paia
Bertsolaria

KOLABORAZIOA

Zumaiako flysch-ak plastikoz beterik daudela erakusten duen bideoa eskandalu bat da, eta horren erantzukizuna administratioarena da. Orain dela 65 urte plastikoa erabiltzen hasi zenetik 8.000 milioi tona erabili ditugu; horietatik 5.700 hondakin bihurtu dira, eta horien %79, 4.900, naturan bertan behera utziak edota zabortegietan daude; %9 bakarrik birziklatu da. (Jemma Jambeck). Berez plastikoa oso merkea da; horrek bere erabilpen masiboa ekarri du, baina hondakin bihurtzen denean deseginezina da. Horrek sortzen dituen arazo horiei aurre egitea premia da.

Banaketaren nazioarteko korporazio eta supermerkatuen interesen arabera antolatu da gizartea. Plastikoen lagun handiak izanik, negozio eredu jasanezina sortzea lortu dute. Objektuak jadanik ez ditugu kontserbatzeko egiten, erabiltzeko eta botatzeko baizik. Norabide aldaketa behar da, eta kultura horri agur esan behar diogu ahalik eta lasterren.

Euskal Autonomia Erkidegoan oso urrats gutxi egin dira erabilera murrizteko. Plastikozko poltsak kobratzearena sinbolikoa da eta kontsumitzaileari begira eginda dago, eta ez sortzaileari; beraz, ez dio arazoari aurre egiten. Epe luzera dagoen irtenbide bakarra hondakin plastikoen zeharo murriztea da, baita gehiago birziklatzea eta berreraikitzea ere. Erroka horri ez diote soilik herritarrek aurre egin behar, Euskadiko erakundeek beren gain hartu behar duten erantzukizuna da. Ondorioz, argia da Europako Batzordeak ezarritako estrategiak eta helburuak geure egin behar ditugula, plastikoen kutsagarrienen erabilera murriztu nahi badugu.

Plastikoen arazoa konpontzeko hiru zutabe daude: kontsumoa jaistea, bizitza laburreko plastikoen kentzea, eta hondakinen kudeaketa egokia egitea. Giltzarria birziklapenean eta plastikoa murriztean dago. Lehen erabiltzen ziren beste materialak egindako produktuak erabiltzen hasi behar dugu berriro ere.

Baina Euskadin dagoen zabor tratamenduen sistema agortuta dago eta bizkarrezurra Zabalgarbi errauskailua da, hots, duela 25 urte diseinatutako errausketa planta, hondakinen tratamendua erabat baldintzatzen duena. Bestetik, egungo hondakinen kudeaketa sistemak, ez du funtzionatzen. Eco-

Plastikoa utikan!
Zergatiak**Jose txo Alvarez**

Zero Zabor Bizkaia egitasmoa

embes enpresak edukiontzien birziklapena monopolizatzen du, oso lukratiboa eta batere ekologikoa ez den SIG deituriko kudeaketaren bitartez, Alemaniak eta Norvegiak bueltatzeko sistema (SDDR) batekin plastikozko botilen %98 birziklatzea lortu dute. Hori bai eraginkorra!

Administrazio zorrotzagoak eta ausartagoak behar ditugu. Politikariak eroso daude beren karguetan, eta dituzten baliabidek gardentasuna eta egia bilatzeko erabili ordez, industriaren propagandan murgiltzeko erabiltzen dituzte. Bizkaian dauden datuak ez dira zehatzak, tamalez ilunak eta manipulatuak dira. Nola kudeatu daiteke ez bada errealitatea ezagutzen? Datuak propagandarako besterik ez di-

ra. 2014an Bizkaia hondakinen %67,7 birziklatzen zuela esan zuten, 2016an birziklatze tasa 43,78ra jaitsi zen eta 2017an, berriaz, 47,5koa da. Hau kudeaketa eraginkorraren itxura emateko trikimailu kontableak erabiliz egiten da. Oso tristea izan behar da birziklapen tasak oso txikiak direla aitortzea, askoz errazagoa da plastikoen industriaren mezu atseginarekin gelditzea, arazoaren neurria ezagutzea eta konponbideak bilatzea baino.

Lege berria behar dugu, Nafarroan egin den bezala; "erabili eta bota" filosofia geldiarazteko, plastikoa beste material batzuekin ordezkatu behar da.

Materia hau murriztea ingurumenaren aldeko lehen mailako zeregina bihurtu da, aldaketa klimatikoaren mailakoa, gaur egun plastikoen ekoizpenak gure hondakinen kudeaketa ahalmenak gaintzen ditu. Itxuraz kolapsora goaz.

Gure itsasoetan plastiko kopurua handia da; berez urte hauetan itsasoa zakarrentzi bezala erabiltzen dugu, Frantziaren tamainako zabor uharteak sortuz. Duda barik, mundu mailako arazo baten aurrean gaude. Plastiko handiek itolarria eragiten diete animalia askori, eta gainera inpaktu estetikoak sor dezakete, baina errazak dira topatzen. Mikroplastikoak, aldiz, ez.

Plastikoa degradatu egiten da eta zati txikiagoetan zatitu. Mikroplastiko hauek Lurreko itsaso guztietan daude. Ikusezinak dira, baina egon, badaude, eta horiek kate trofikora eta ozeano hondora igarotzen ari dira. Beraz, kaltegarriak dira ingurumeneko, naturarako, baita gizakien osasunerako ere.

Bizkaiko golkoa eta Kantauri itsasoa ez dira salbuespen; lehen begiradan garbia ikusten den arren, itsasoan zarama asko dago. Ez da ikerketarik egin Bizkaiko Golkoan zaborraren arazoaren larritasuna zenbaterainokoa den jakiteko. Baina aurten Mutrikun, Kantauri Garbia kolektiboaren ekimenez, itsas hondoren garbiketa egin zutenean, azken urteko 3.800 kilo hondakin atera zituzten.

Lege berria behar dugu,
Nafarroan egin den
bezala; «erabili eta bota»
filosofia geldiarazteko,
plastikoa beste material
batzuekin ordezkatu
behar da

EDUKI +

www.naiz.eus/iritzia

Zuzendariari eskutitzak

• Cero en calidad en el Servicio de Urgencias del Hospital Santiago
Prudencio García Ortiz de Orruño

Kolaborazioak

• Irungo herri galdeketa
Elena Berazadi Larrea

• Autofinanciación sostenible de la Diócesis
Juan Maria Olaetxea

naiz